

# EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



ale berezia  
**Ezker**  
Iraultzailearen  
aldizkaria

www.euskalherriasozialista.net



## 11/13 sumarioa

**Euskal presoek eskubideak defendatzea ez da delitua**

**78ko erregimenaren eta errepresioaren aurka:**

# Mobilizazioa eta masa borroka

# 11/13 sumarioa

Euskal presoen eskubideak defendatzea ez da delitua

78ko erregimenaren eta errepresioaren aurka:

# mobilizazioa eta masa borroka

2011ko urriaren 20an ETAK ekintza armatuaren alde bakarreko behin betiko amaiera iragarri zuen, lehenago 2010eko irailean su-etena iragarri ondoren. Horren aurrean, espainiar estatu aparatuen erantzuna, PPreh nahiz PSOEn gobernuen baitan, errepresioa areagotzea izan da, hori arma politiko gisa erabiliz. Zuzenean frankismotik datorren Estatu aparatua honen erantzun polizialak sortutako saminak euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazio masiboak eragin ditu Euskal Herrian urtez urte. 11/13 sumarioak euskal langile klasearen eta gazteriarren mugimendua erasotzea eta kriminalizatzea du helburu.

Euskal presoak izan dira zigorra eta mendekua inposatzeko erabili den kolektiboa: bere horretan mantendu dira sakabanaketa eta kartzela politikak, NATOk berak jasotzen dituen oinarriko giza eskubideak urratuz. Aldiz, errepresioak bere jo puntuan ezarri du egoera hau salatu duen mugimendua.

2013ko irailean, Guardia Zibila Herriaren aurkako lehen sarekada egin zuen, 18 atxilotuarekin -2012an sortu zen mugimendua euskal presoen eskubideak defendatzeko, ETAREN amaieraren tesuinguruan-. 2014ko urtarrilean, Bilboko Arantza Zulueta abokatu bulegoan zazpi pertsona atxilotu zituzten eta beste bat Iruñean. 2015eko urtarrilean, beste sarekada batean hamabi abokatu eta Herriarako beste lau kide atxilotu zituzten. Abokatuak hiru Madrilgo hotel batean ziren, egun horretan bertan hila behar zuen Ezker Abertzaleko 35 militanten aurkako epaiketa prestatzen.

11/13 sumarioak 47 pertsona epaituko ditu, orotara 601 kartzela urteko eskaerari eta 350 mila eurotan kalkulatu diren gastuei aurre egin

beharko dienak. Erakunde terroristan parte hartzea, terrorismoa finantzatzea edota gorazarre egitea egotzen zaie. Akusatu gehienak Herriarako kideak dira. Presoen 13 abokatu ere prozesaturik daude, Jaiki Haidiko kideak (presoen osasun arretara bideraturiko mediku, psikologo, psikiatra, etab.ek osatua), senideen Etxerat erakundeko kideak eta EPPKren bitartekari gisa parte hartu zuten hainbat norbanako. Inputaturiko bederatzita bitartekariak publikoki agertu ziren prest 2012an EPPK gatazka armatuarekin amaieraren baitan gauzatu zuen barne eztabaidaren ondorioak instituzioei eta eragile soziali helaraztera.

## Estatuarentzat "dena da ETA" mobilizazioa kriminalizatzen

Eloy Velasco epailea, 2014ko Herriaren manifestazioa galarazi zuen berbera, izango da Auzitegi Nazionalen epaiketak arduratuko dena. Instrukzioak oinarri duen argumentazio estrafalarioak erabat agerian uzten du Estatu espainiarreko justizia aparatuen benetako izaera eta helburua. Pertsona hauei egotzen zaiena armak uzteko prozesuan ETAREN agindupean aritzea da. Planteatzen du ETAK "jardueraren" ezteza erabaki zuenean "indar metaketaren" estrategiarekin ordezkatu zuela. Horren arabera, Ezker Abertzalearen estrategia berri bati egiten zaio erreferentzia, "prozesu demokratikoa" deitzen zaiena eta helburua Euskal Herrian ahalik eta indar politikoa eta sozial gehien biltzea da, nazio gisa aitortua izan dadin eta autodeterminazio eskubidea eskura dezan".

Hau da, pertsona horiek ETAREN behin betiko amaieran laguntzeagaita

etik izango dira epaituak, aparatu judizialak berak onartzen duen moduan.

"Dena ETA da" tesia da oraindik ere diktaduratik datorren Estatu aparatuen akusaziorako arma gogokoena. ETAREN su-eten, desarmatze eta desegitearen ondoren, tesi hori atzean uztekin urrun, dimentsio handiago bat eman dio gazteriarren eta langile klasearen errepresioa justifikatzeko, eta Euskal Herriatik kanpora ere eraman du. Catalunyako herriaren eta CDRen aurka erabili dute, txiolarren, raperoen, sindikalisten, etab. aurka. Euskal Herria Altsasuko gazteen muntaia polizial eta judiziala eta orain makro epaiketara honek argi erakusten dute ez dagoela atzera egiteko asmorik.

PP, Cs eta Voxen bloke atzerakoak bere diskurtso frankistaren zati handia bideratzen jarraitzen du borroka antiterroristara eta erabateko "garaipen polizialera". Hala ere, hauteskunde kanpainen Euskal Herria egin zituzten mitin probokatzaileek ezin ezkuta dezakete hauteskontzietan jaso duten porrot izugarria, ezta langile klaseak bere manipulazioaren aurrean sentitzen duen samina ere. Pedro Sanchezek eta Grande-Marlaskak ere argi utzi dute ez dutela atzera egiteko inolako asmorik eta ez dutela Rajoyren gobernuaren gorakada errepresioaren funtsezko puntu bakar bati ere buelta emango.

Horrela ikusi ahal izan dugu Catalunyaren kasuan, Altsasuko gazteekin, presoek sakabanaketarekin eta 11/13 sumarioarekin. Mozal Legea bera ere PPK diseinatu bezala mantentzeko asmoa dute. Azken batean, erabat kontziente dira errepresioak klase dominatzailearentzat berebiziko garrantzia duela areagotzen ari den mobilizazio sozialari eta 78ko erregimenaren kritikari aurre egiteko.

Zentzu honetan, EAJ ere talde beraren parte da. Orain dela 30 urte preso sakabanaketaren politiken bultzatzaile nagusia izan zen. Cabacas auziak ondo baino hobeto erakusten du egun nola funtzionatzen duen EAJk Euskadin sortu den aparatu errepresiboak. Ortuzarren komentarioak esaterako, Ezker Abertzaleko ekintzailei "fachas vascos" deitzen, ez dira gehiegi bereizten bloke atzerakoitik. Uda honetan, Eusko Jaurlaritzara bera presoengandik etorriren aurkako kanpainara batu da, AVTregan babestuz bere burua, erregimenaren defendatzaile guztiak bezala.

## Errepresioaren aurkako borroka sistemaren aurkako borroka da

Eskuinak eta PSOeko buruzagiek temati errepikatzen badute ere, ETAREN amaieraren benetako kausa ez da garaipen poliziala izan. Faktore garrantzitsuen 2008ko krisitik aurrera izan den gazteriarren eta langile klasearen mobilizazioaren gorakada izan da. Euskal Herria greba orokor masiboetan adierazi zen, esate baterako, mugimendu handiak egon ziren Estatu mailan eta Europan, bereziki garrantzitsua izan zen Latinoamerikako borroka iraultzailearen gorakada, eta orokorrean mundu guztiko mobilizazio sozialaren gorakada. Benetan usteldurik dagoen sistema kapitalista baten aurrean, masen borroka bihurtu da egoeraren protagonista eztabaidazina.

2017ko udazkenean Catalunyako herriak burutu zuen altxamendua ikasgai baliotsuak eskaintzen ditu. Poliziak eta Guardia Zibila onartu behar izan dute garaituak izan zirela kaleko mobilizazio baktetsuaren aurrean. Beraien inpotentzia begi bistakoa izan zen. Burgesia katalanak kapitalen ihesarekin mehatxatu zuen; burgesia europarrak, elkarturik, altxamendua zapuzteko kanpaina bati ekin zion eta erregimenak indar errepresiboak kontzentratu zituen. Horrek, argi erakusten du autodeterminazio eskubidea eta benetako subiranotasuna eskuratzeko bide bakarra klaseko programa iraultzaile bat dela, sistema kapitalista suntsitzea planteatuko duena.

Ezin bereiz daiteke errepresioaren aurkako borroka, zapalkuntza kapitalistaren aurkako borrokatik. Errepresioaren helburua mobilizazioarekin amaitzea da, eta ezkerak errespetuz joka dezan 78ko erregimenak eta Konstituzioak ezarritako mugekin. Baina, egian esan, errepresioak agerian uzten duena erregimenaren ahultasun ikaragarria besterik ez da, euren bake soziala inposatzeko duen ezintasun ikaragarria. Euskal Herria langile klasearen eta gazteriarren mobilizazioa aurrera pauso garrantzitsuak ematen ari da. Indar horretan oinarritu behar dugu langile klasea batu eta sistema honek sortzen duen zapalkuntza ororekin amaitzeko.



# Elkarrizketa

## 11/13 sumarioan inputaturiko Herriarako kideei

KONTRAPORTADAN HASTEN DA eta ez ditzagun aurrerapausoak eman. Eta ikusten dituzten aurrera goazela orduan eta bortitzago erabiliko dute errepresio hori. Beraien eskuetan daude preso eta iheslarien baldintzak, beraienak dira kartzelak, polizia, isunak, Mozal Legea... baina badakigu mobilizazioarekin aurre egin ahal diogula horri eta geldiarazi beharra zeukaten.

**Minde:** Gure kasuan nahiko argi dago euskal gatazka konpontzeko zenbait espa-

rrutan egiten ari ziren saiakera serioak zotpatzeko asmoari erantzuten ziola. Gogoratu behar dugu "Parot doktrina" deitutakoari Estraburgon jarritako helegitearen erantzunaren zain geundela. 2013ko urrian heldu zen, eta denbora gutxi 60 euskal preso askatu zituzten. Kolpe gogorra izan zen estatuarentzat, eta horregatik egun batzuk geroago Herria erakundearen aurka jo zuten, 18 pertsona atxilotu eta erakundea legez kanporatu zuten; ondoko hila-beteetan zenbait sarekada egin zituzten,

dozenaka lagun atxilotu eta gutzira 47 prozesatu zituzten.

Estrasburgoko erresoluzioak espetxeetako ate asko ireki zituen; operazio polizialaren asmoa zen egoera hori neutralizatzea.

**3.- Mugimendua isilarazteko saiakera horren aurkako mobilizazioak erraldoiak eta, askotan, historikoak, izan dira, Altsasun, Procesaren aurkako epaiketan edo La Manadaren kasuetan besteak beste. Zein da ateratzen du-**



## elkartasuna

Parte hartu kanpainen Altsasuko gazteak askatu! Muntaia polizialik ez!

**Nazioarteko ikasle greba**

**Manifestazioa zure hirian 12etan**

Informazio guztia, propaganda, manifestazioen ibilbidea... [www.ikaslesindikatu.net](http://www.ikaslesindikatu.net) wegunean

“ Errepresioari aurre egiteko eskuetan dugun bakarra gure nahia eta mobilizatzeko ahalmena da. Catalunya edo Altsasu gisan egin behar dugu

zuen ikasgaia? Zein da borrokatzen dutenen aurkako errepresioarekin bukatzeko modua?

**Minde:** Funtzionatzen duten esperientziak gizarteko kapa desberdinetara iritsi eta gehiengoak bere egiten dituztenak dira.

Uste dut egokienak direla parte hartze, mobilizazio eta borroka zabal eta bateratzaileak, tinko eta eraginorrak izaterari utzi gabe. Horretarako, lan handia eta kontu handiz egin behar da, errespetuz entzun, kalean eta beste espazioetan ibili gora eta behera, oinak astindu. Eta erregimenaren aurrean.

**Fran:** Uste dut errepresioari aurre egiteko eskuetan dugun bakarra gure nahia eta mobilizatzeko ahalmena dela. Catalunya edo Altsasu gisan egin behar dugu. Mobilizatu, elkar eskuetik hartu, elkar-tu eta injustiziarri aurre egin. Sistema kapitalistan honek daukan gizarte zurruntza, mobilizatzea eta aurre egitea da. Sufrituko dugu, min emango digute, baina ez dut ikusten beste modurik errepresioari aurre egiteko. Altsasun, La Manadak, Calatunyak... erakusten dute. Mobilizazio oso garrantzitsua da eta modu horretan egingo diogu aurre kasu honetan Estatu espainiarretik datorren bortizkeria bidegabe honi.



Antolatu zaituzte

**EZKER IRAULTZAILEAN**

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

• 1.100 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata! Lan eta pentsio kontrarreformak indargabetzea.

- Legez etxe kaleratzeak debekatzea. Eskaria asetzeko behar beste etxebizitza publiko osatutako parkea, alokairu sozialean.
- Indarkeria matxistaren, justizia patriarkalaren eta LGTBI komunitatearen kontrako diskriminazioaren aurka.
- Hezkuntza eta osasungintza duina, kalitatezkoa eta doakoa. LOMCE eta Heziberri indargabetzea.
- Faxismoa eta arrazakeriaren aurka borrokatu behar da mobilizazioarekin eta antolakuntzarekin. Atzerritarren Legea indargabetu eta Atzerritarren Internamendu Zentroak itxi behar dira,

etorkinei eta beren familiei eskubide politikoak, sozialak eta ekonomikoak bermatuz.

- Errepresio judizial eta polizialik ez. Adierazpen eskubidearen alde. Mozal Legeari ez!
- Bankaren eta ekonomia sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herriko eta Kataluniako errepublika sozialisten alde eta errepublika sozialista federal baten alde, egun Estatu espainiarra osatzen duten herri eta nazioen batasun libre eta borondatezkoan oinarritua, erabaki hori hartuta.

# Elkarrizketa

## 11/13 sumarioan inputaturiko Herrirako kideei

Ezker Iraultzailetik Jon Mindegiaga eta Fran Balda elkarrizketatu ditugu, 11/13 sumarioan inputaturik dauden Herrirako kideak. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu eta beraiei zein auziperatu guztiei gure babes eta elkartasun osoa adierazi.

**1.- Kontaiguzue zuen kasua. Zergatik egin behar diozue aurre makroepaiketa honi? Zer egozten dizuete?**

**Minde:** Sumario honetan auziperaturik gauden 47 pertsonak salatutik gaude ETako kide izateagatik, terrorismoari gorazarre egiteagatik, terrorismoa finantzatzeko edo kebrantamenduagatik; bakoitza akusazio konkretu batekin eta 8 eta 20 urte bitarteko kartzela eskariekin. Gainera, gertaerak garai konkretu batean kokatzen dira, 2012. eta 2014. urteen artean; hau da, ETak bere ekinbidea betiko amaitutzat eman zuenean, eta desegite prozesuan zegoenean, gerora gertatu den bezala.

Egia esan, auziperaturik gaudenak euskal presoek defentsan esparruren batean lan egin dugun abokatuak, ekintzaile sozialak, militanteak, preso ohiak, senideak, medikuak, psikologoak... gara; defentsa juridikoan, mobilizazioak edo sentsibilizazio kanpainak antolatuz, injustiziak salatuz, presoek osasunari jarraipena eginez edo nolabait sakabanaketa politikak eragiten dituen ondorio ekonomikoak arinduz.

**Fran:** Gure kasua kokatzeko lehenik eta behin garaian kokatu behar dugu, 2012ko egoera berezi hartan. Han garbia zen ETA erakundeak bere ekinbidea bukatutzat eman zuela. Garbi zegoen Euskal Herrian esperantza berri bat sortzen ari zela, gatazkak sorturiko hainbat eta hainbat ondorio buelta emateko. Sekulako esperantza zegoen, batez ere preso eta iheslari guztiak etxera bueltatzeko. Horren inguruan antolatzen hasi ginen, jende oso ezberdina, hainbesteko ilusioa zegoen egoera hartan. Berehala konektatu genuen gure aldarrikapenekin bat egiten zuten Euskal Herriko hainbat eta hainbat sektore-

rekin. Eta horretan sortu genuen *Herrira* mugimendua. Garbi zegoen mugimendua konektatzen zuela. Urte bateko ibilbidean Herrirako 200-250 talde genituen Euskal Herrian, eta hori oso adierazgarria zen.

Barne Ministroak aipatu zuen garai hartan *Herrira* zuela mobilizazio gaitasun handiena mugimendua bezala Euskal Herrian eta hori zapuztu beharra zegoela. Momentu hartan etorri zen Estrasburgoko ebazpena, non arrazoia ematen zitzaion gu borrokatzen ari ginenari eta presoek eta beren abokatuak landu zutenari. Garbi dago momentu horretan hegala moztu nahi zizkiotela gure mugimenduari eta hor eman ziguten kolpe errepresibo indartsu bat. Adierazgarria da zein momentutan. ETak bere jardura amaitutzat zeukan, kristoren ilusioa zegoen Euskal Herrian, jende asko eta ongi antolatzen ari zen preso eta iheslariak etxean egon zitezen.

**2.- Azken urte hauetan gorakada errepresiboa bizi izan dugu mugimendu sozialen eta ezkerren aurka EHN eta baita Estatu mailako hainbat tokitan. Zeri erantzuten dio honek?**

**Fran:** Momentu hartan herri honetan bizi zen ilusio hori zapuztu nahi zuten. Estatuak bazekien gure planteamenduak aurrera egin ahala, desblokeo egoera batera eramango gintuela. Preso eta iheslariak bide horretatik etxeratuz gero, bidea garbitzen zen herri honek beste salto batzuk emateko. Garbi zegoen momentu hartan gure planteamenduek eragin handia zutela gizarte osoan eta status quoak horri beldur handia dio. Bere planteamenduei aurre egiten dien jende antolatuari beldur handia izaten dio. Beraiek beti dute aldagai nagusi bat egoera guztiei aurre egiteko eta hori errepresioa da. Hori dute indar nagusizat eta hori erabiltzen dute behar den guztietan jendea kokiltzeko, gure aurka, jende xumearen aurka, ez gaitzen antolatu

3. ORRIAN JARRAITZEN DU ▶

